ERANDIO ELIZATEKO UDALAREN

VIII. IPUIN LEHIAKETA

eta

I. BERTSOPAPER LEHIAKETA

2008-2009

MUNDUA!!

Eskuzabalik hartu
sentitu etxeko!
Elkarrekin mundu bat
dugu banatzeko

Kilometroek ba al
dute garrantiza?
Diruak markatzen du
beti distantzia

Hona etorri dira
duten bizi motza
Beraien familian
daukate bihotza

Beren herrialdera
gutxi bidaiatu
Maitatuta sentitu
alaitu eta poztu!

Beraien ametsa da
beren herrialdea
sinesten dute beti
bertan geratzea

Doinua: Ama begira zazu

IDOIA FERNANDEZ DE ANDRES
11 urte

MUTIL KANPOTARRA

Lau urterekin heldu
nintzen Angolatik
Astrabuduan nago
bizitzen ordutik

Lehen triste nengoen
familia falta
orain gustura nago
lagunak ditut ta

Herrian berdina zen
etxe eta jendea
hemen desberdina dut
azal kolorea

Euskara ikasi dut
ohitu naiz azkar
hitz egiteko nitaz
euskara dut behar

Hemendik ez dut inoiz
joan nahi herrira
berria naizelako
hemen onak dira.

Doinua: Ama begira zazu

FILOMENO MANSINGA
11 urte

BIDAIAK

Ume batek esan dit
zer diren bidaiak
ta nik erantzun nion
direla bideak

Ere galdetu zidan
zertarako diran
ta berriz esan nion
munduari biran

Mundua zabala da
jende pila dago
leku askotan daude
aukera gehiago

Relajatzeko dira
bidaia guztiak
adibidez hondartzak
edo ta mendiak

Everestera igo
hori da gogoa
ta Kalifornian dago
hondartza beroa

Doinua: Ama begira zazu

ALBA LOPEZ PEREÑA
10 urte

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ERANDIO
ELIZATEKO UDALA

EUSKARA ZERBITZUA